

**Seigarrena.-** 2007ko ekitaldiari dagokienez, Euskal Herriko Unibertsitatearen edo herri-administrazioetako erakundeen eta horien menpeko besten batzuen ordutako tarifa 31,91 eurokoa izango da euren plantilla-koentzako edo pertsonalarentzako, eta dirua lagundutako proiektuarentzako: zeharkako kostua (31,91) gehi proiektua egiteko kontratatutako pertsonalagatiko kostu zuzena.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko uztailaren 24a.

Teknologiko eta Industria Garapenerako sailburuordea,  
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.

## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

**4324**

EBAZPENA, 2007ko uztailaren 4koa, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, berezko tituluei buruzko arautegi bateratuan egindako aldaketak argitaratzeko dena.

UPV/EHUko Estatutuetako 130.2 artikuluari jarraituz, Gobernu Kontseiluari dagokio UPV/EHUko berezko tituluak lortzera zuzendutako berezko ikastaroak erregulatzeko arau orokorrak zehaztea, eta, batez ere, ikastaro horiek irakasleen irakats zaman izango duten eragina eta gutxieneko baldintzak. Dena dela, Estatutuetako 130.3 artikuluan zehaztutakoaren babesean, Gobernu Kontseiluak dauka berezko tituluak, espezializazio ikastaroen eta unibertsitateko beste ikasketa batzuen prezioak zehazteko eskumena.

Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak, 2006ko abenduaren 20an egindako bileran, berezko ikasketei buruzko arautegi bateratua onartu zuen eta 2007-03-13an argitaratu zen EHAA. Arautegi horretan zehaztuta daude graduondoko titulazioak, graduokoak eta etengabeko prestakuntzakoak. Arautegi horretako 3.A.2 artikuluan jasota daude gradu titulazio ofizialei lotutako berezko tituluak, bai eta horietara sartzeko baldintzak ere.

Era berean, jasota dago guztira 20-30 ECTS kreditu izango dituztela eta iraupena kasuan kasuko gradu tituluaren araberakoa izango dela.

Hala ere, ikasketa hauek izan beharko lituzketen ezaugarriak aztertu ondoren, ikusi dugu egokia dela titulu hauek gehienez izan dezaketen kreditu kopurua handitzea. Gure proposamena da gehienez ere 60 kreditu

**Sexto.-** Las tarifas horarias para el ejercicio 2007 para la Universidad Del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU o de otras entidades pertenecientes a las Administraciones Pùblicas o vinculadas o dependientes de las mismas, será de 31,91 euros para el personal propio o de plantilla y el resultado de sumar al coste indirecto (31,91 euros), el coste directo del personal contratado específicamente para realizar el proyecto subvencionado.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de julio de 2007.

El Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial,  
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

**4324**

RESOLUCIÓN de 4 de julio de 2007, del Rector de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, por la que se procede a la publicación de la modificación de la normativa unificada sobre enseñanzas propias.

Corresponde al Consejo de Gobierno, conforme al artículo 130.2 de los Estatutos de la UPV/EHU, dictar las normas generales reguladoras de los cursos de especialización de posgraduados o de formación profesional que puedan conducir a la obtención de títulos o diplomas propios de la Universidad y, en concreto, su incidencia en la carga docente y los requisitos mínimos, sin perjuicio de la competencia del Consejo Social (artículo 130.3) en la fijación de «los precios de las enseñanzas propias, de cursos de especialización y de otras enseñanzas universitarias».

El Consejo de Gobierno de la Universidad, en sesión celebrada el 20 de diciembre de 2006, aprobó la normativa unificada sobre enseñanzas propias, normativa que fue publicada en el BOPV de 13-03-2007. En esta normativa se definen las titulaciones de posgrado, de grado y de formación continua. En el artículo 3.A.2, se establecen los títulos propios vinculados a las titulaciones oficiales de grado y condiciones de acceso al mismo.

En esta regulación se fija la duración de los citados estudios entre 20 y 30 créditos ECTS condicionando su duración a la del título de grado a la que esté adscrito.

No obstante, analizadas las características que deberían tener estas enseñanzas, se estimó la conveniencia de incrementar el número máximo de créditos de este tipo de título. Se propone como nuevo límite máximo

ditu zehaztea, hartara malgutasuna handiagoa baita eta bi ikasketa moten arteko bateragarritasuna erabatekoa. Horrela, bada, Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak, 2007ko ekainaren 21ean egindako bileran, aipatutako arautegiko hirugarren artikulua aldatzea erabaki zuen.

Hori guztia kontuan hartuta, eta ekainaren 29ko 19/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzeko denak, 4.7 artikuluan zehaztutakoaren babesean (1998-07-16ko EHAA), honako hau

#### EBATZI DUT:

**Artikulu bakarra.**— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Berezko Ikasketen Arautegi Bateratuko 3.A.2 artikulua.

Leioa, 2007ko uztailaren 4a.

#### ERREKTOREA.

B.O., Errektoregoaren 2006ko uztailaren 20ko Ebazpenari jarraituz, (2006ko abuztuaren 21eko EHAA)

Graduko eta Graduondoko Ikasketetako errektoreordea,  
CARMEN GONZÁLEZ MURUA.

#### ERANSKINA

3.A.2 artikulua.— Gradu titulazio ofizialei lotutako berezko tituluak, lotutako titulazio ofizialean ikaskeak egiten ari direnentzat. Guztira 20-60 ECTS kreditu izango dituzte; iraupena izango da atxikitako gradu tituluaren araberakoa. Halaber, titulazioa lortzeko gradu ofiziala eduki behar da. Titulazioaren izena hau izango da: «.....-n aditua, .....-ko gradu titulazioari atxikia».

60 créditos, ya que permite la necesaria flexibilidad entre las diferentes propuestas que se pudieran presentar y posibilita una adecuada compatibilidad entre ambas enseñanzas. Por tanto, el Consejo de Gobierno de la Universidad, a propuesta de la Subcomisión de Estudios de Posgrado, en sesión celebrada el 21 de junio de 2007 acordó la modificación del artículo tercero de la citada normativa.

Por todo lo anterior, y en cumplimiento del artículo 4.7 de la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco (BOPV de 16-07-1998),

#### RESUELVO:

**Artículo único.**— Proceder a la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del artículo 3.A.2 de la Normativa Unificada sobre Enseñanzas Propias.

En Leioa, a 4 de julio de 2007.

#### EL RECTOR.

P.D. Resolución del Rector de 20 de julio de 2006 (BOPV 21 de agosto de 2006)

La Vicerrectora de Estudios de Grado y de Posgrado, CARMEN GONZÁLEZ MURUA.

#### ANEXO

Artículo 3.A.2.— Títulos propios vinculados a las titulaciones oficiales de grado: dirigidos a quien curse estudios en la titulación oficial a la que estén vinculados, tendrán una extensión comprendida entre 20 y 60 créditos ECTS y su duración estará condicionada a la del título de grado al que esté adscrito. Así mismo, la obtención de la titulación estará condicionada a la obtención del grado oficial. Se denominará «Experta o Experto en ..... vinculado a la titulación de grado .....».